

Sare soziala, komunitatea sortzeko eta elkarrekintzan aritzeko.

- Orriak aukera korporatiboa dira.
- Orritik administratzen da zuzenean, profil pertsonal baten bidez.
- 2-4 argitalpen egunean, gehienez lauzpabost lerrokoak.
- Interesgarria da argazkiak eta bideoak argitaratzea, orria ikusgarriagoa izateko.



Elkarrizketan, lankidetzan eta elkarrekintzan aritzeko tresna. Ezin hobea gertaeren berri emateko.

- Kontuen izenak: sailaren, zerbitzuaren edo markaren izena + ejgv (15 karaktere gehienez).
- Seesmic eduki-kudeatzailetik administratzen da.
- Tuita = testua + esteka laburtua + #hashtag-a (140 karaktere gehienez)
- Bertuita= BT + @bertuiteatutakoprofilarenizena + tuitaren testua + esteka laburtua + #hashtag-a (140 karaktere gehienez).
- Estekak: handitzen dute tuitaren balioa. Seesmic-en berez datorren laburtzailea erabili.
- Edukiak argitaratzea: 1-10 tuit egunean.



Sare soziala, komunitatea sortzeko eta elkarrekintzan aritzeko.

- Orria irtenbide korporatiboa da.
- Facebook-eko "Atsegin dut" eta "+1" botoia parekideak dira.
- Kontaktuak zirkuluen bidez administratzen dira (zerbait partekatzen duten kontaktu-taldeak).
- Edukiak etiketatu daitezke, hitz gakoaren aurrean # bat jarritz.
- 2-4 argitalpen egunean. Ez dago karaktere-mugarik, baina komeni da 500etik gora ez izatea.
- Ikus-entzunezko edukia.



Komunitatea sortzeko eta elkarrekintzan aritzeko plataforma (14 eta 18 urte bitarteko gazteak).

- Orri-aukera irtenbide korporatiboa da sail, zerbitzu eta marketarako.
- Kudeaketa zuzena plataformatik, administrari-lanak egiten dituen profil profesional baten bidez.
- 2-4 argitalpen egunean.
- Ikus-entzunezko edukia garrantzitsua da.

Profesionalekin elkarrekintzan aritzeko plataforma, lanjarduneko esperientziak trukatzeko.

- Linkedineko kontuak pertsonalak dira, eta oraingo lanpostua aipatzea gomendatzen da, baita email korporatiboa ere.
- Honen bidez, interes-taldeak sortu daitezke ekimen edo proiektuen inguruan. Sail edo arloetan, talde bana sortu daitezke. Eusko Jaurlaritzako talde guztientzako administrari eta jabe bakar batek kudeatuko ditu taldeok.



Webgune interesgarrietako urls-en edo sarean argitaratutako agirien gordelekua.

- Esteka sarean bildu, sailkatu eta partekatzen da.
- Albumetan biltzen dira, tipologiaren arabera (stackak).
- Mozilla Firefox nabigatzailearen Delicious luzapena instalatu behar da.

Plataforma honek irudien gordeleku gisa erabiltzeko balio du.

- Eusko Jaurlaritzak Pro kontu bat dauka, sail eta sailaren mendeko erakundeentzako bilduma bana duena. Aldi berean, kontu horrek zenbait album ditu zuzendaritza, zerbitzu edo marka bakoitzeko.
- Doako bertsioan, gehienezko karga 100 Mbkoa da hilean (10 Mb, argazki bakoitzeko): 200 argazki gehienez.
- Mozilla Firefox nabigatzailearen Fireuploader luzapenetik kudeatzen da.





Aurkezpenak, testu-dokumentuak, pdf eta bideo laburrak argitaratzeko plataforma.

- Eusko Jaurlaritzak Pro kontu bat dauka. Kontu hori sailen eta haien mendeko erakundeen dokumentazioa biltzeko gordeleku erkidea da.
- Mozilla Firefox nabigatzailearen Fireuploader luzapenetik kudeatzen da.
- Doako bertsioan, 20 Mb-koa muga du dokumentu bakoitzeko.

Norberaren bideoak argitaratzeko eta partekatzeko plataforma.

- Eusko Jaurlaritzak kontu korporatibo bat dauka, eta bertan erreproduktiozerrendetan sailkatutako edukiak biltzen dira.
- Bideoek 15 minutu iraun dezakete gehienez.
- HD bideoak igo daitezke, zenbait formatutan.



Plataforma honen bidez, loturak, testuak, aipuak, bideoak, argazkiak, elkarrizketak eta audioak argitaratu daitezke, egituratu beharrik gabe.

- Behin edo bi aldiz argitaratu daitezke edukiak egunean.
- Testu laburrak, pertsonen arteko elkarrizketak, prentsa-ebakinak, kanpoko loturak...

Tresna honen bidez, sailaren, zerbitzuaren edo markaren jardueraren inguruko eztabaida sustatzen da.

- Astean, post edo sarrera bat edo bi argitaratu daitezke.
- Gehienez, 6 paragrafo (500 hitz inguru), irakurketa-maila bitan banatuta (informazio nagusia eta gehigarria)
- Komentarioak aurretik moderatu behar dira, zuzentasuna, errespetua eta egokitasuna oinarri.
- Gomendatzen da komentarioei gehienez 24 orduko epean erantzutea.



Argazkiak edo bideoak partekatzeko sare soziala.

- Partekatzen diren argazki-albumak sortzen dira, gaika sailkatuta.
- Argazkiak eta bideoak web-orrietan txertatu daitezke.
- Komunitatea sortzen da, gainerako erabiltzaileekin elkarrekintzan, repin-en bidez edo "atsegin dut" sakatuz.

### **Kontuak ofizialki zabaltzeko eskatu nahi duenak prozedura hau bete beharko du:**

- Web-zerbitzuara jo, horren berri emateko eta galdeketa laburra betetzeko.
- Kontuak baimendu.
- Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritzak kudeaketatresnak eskaintzen dizkie eskatzaileei eta kontuak konfiguratzeko dituzten Administrazioan sare sozialak erabiltzeko estilo-gidari jarraikiz (irudi korporatiboa).
- Kudeaketa-tresnetako batzuk erabiltzeko, Firefox nabigatzailea eduki behar da.

### **Lizentzia irekiak eta egileeskubideak**

- Eusko Jaurlaritzak bere sare sozialetan dauden testuak, komentarioak eta ekarpenak ustiatzeko eskubideen titulartzat jotzen da, eduki horiek errepikatzen, jendaurrean komunikatzen eta transformatzen errazte aldera. Gainera, bere edukien egilea da.
- Eusko Jaurlaritzak Creative Commons lizentziak aukeratzeko ditu, berez, eta haien artean, irekiera handiagoa edo berrerabilpena errazten dutenak, esaterako, BY (ezagutzea) edo BY-SA (ezagutzea, berdin partekatu).
- Sare sozialetan erabiltzen diren irudi edo bideoetan pertsonak agertuz gero, pertsona horien baimena beharko da, salbu kargudun publikoak edo pertsona publikoak badira, eta irudiak ekintza publiko batean hartuak.
- Eusko Jaurlaritzak bermatzen du datu pertsonalen isilpekotasuna, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoari jarraikiz.